

Hernaniko Musika Eskolak, hogeita bost urte

Iñaki Eguren (Hernani Musika Eskola Publikoa)

Mende laurdena joan da 1985eko irailean Hernaniko udal musika eskolak lehen ikasturtea hasi zuenetik. Historia egiten hasita ordea, ez dago esaterik orain hogeita bost urte sortu zenik musika eskola Hernaniko Udalean. Ez da hala, XIX. mende bukaeratik, musika banda dagoenetik, alegia, zerbitzu hori eskaini izan delako; eta seguru asko lehenagotik ere izango ziren, bai txistu eskolak, baita musikako eskolak ere, parrokiako organistiatik edo. Baina urrutitxo joatea genuke haietara jotzea. Inork gehixeago jakin nahi izanez gero aurrekari haiei buruz, urtekari honetan bertan, 1999ko alean, Zipri Otxandorenak artikulua labur baina mamitsua badu argitaratua.

Gaur *Hernani* Musika Eskola Publikoa denaren historia, seguru asko, 1984an hasten da. Garai hartan, udaletxeko azkeneko pisan, **Juan Jose Iruretagoienaren** zuzendaritzapean entsaiatzen zuen Severino Vázquez lehendakari zuen udal musika bandak, ordurako Manuel Sagarna jada bandaren batuta hartua bazen ere. Eta udaletxeko azkeneko pisu hortantxe, bandak

entsaiatzen zuen areto hartan alegia, gauzatzen ziren orduan "**akademia**" zeritzan hartako musika eskolak. Ordura arte, bandako musikoak beraiek (Manuel Sagarna, José Luis Fernández, Juan Jose Iruretagoiena,...) eta txistulariak (Antonio Insausti **Txobito** batik bat) izan ohi ziren musika irakasleak, gainera Manuel Yabenek organoa eta akordeoia jotzen ere erakusten zue-

larik. Akademia hura ordea behera zihoan nonbait. Txobitok 1983-1984 ikasturtean 42 txistu ikasle bazituen ere, 1984-1985ean jada ez zuen akademiako irakasle gisa figuratzen; Manuel Yabenek arazoak zituen akordeoi eta solfeo eskolak mantentzeko; eta Iruretagoiena bera ere bandatik erretiratzekotan zen.



Aldi berean, ordea, Gipuzkoa osoan herrietako kontserbatorioak berrindartzeko mugimendu bat nabaritzen hasia zen. 1984an bertan, Foru Aldundiak laguntzak eman zituen herri ezberdinetan soinu tresnak eros zitezen, honela eskola hauek bultzatzen joateko, eta 1980ko hamarkada hartan sortu ziren gure lurralde honetan gaur hain ugari diren musika eskola publiko gehienak. Bestalde, Hernanin bertan, gero Kantuz musika eskola izango zenaren hazia erretua zen, Imanol Urbiet, Fernando Ederri eta beste zenbaiten egitasmoa Udalak bere eginik herriko ikastoletan musika hezkuntza zerbitzu berezia antolatua zuelarik, eta gainera gitarra eskolak ere ematen zituzten, arakasta handiz.

Ez da kasualitatea beraz, 1984 hartako udal agintariak, Ricardo Mendiola alkate eta **Koro Etxeberria** zinegotzia kultura batzordearen buru zitzutela, musika akademia hura berri beharra zegoela erabaki izana. Xede honekin, 1984-1985 ikasturterako piano irakaslea kontratatu zuten, **Montserrat Auzmendi**, musika eskola berriko lehen irakaslea izango zena, eta solfeo eskolei heutsi zitzaizen trantsizioko urte hartan, Juan Jose Iruretagoiena eta Maribi Arrutiren eskutik; eta Txobitok, bere kabuz, lau txistu ikasle mantendu zituen (ni ere lau horien artean nintzen, ondo oroitzen dut eskola haiek "klandestino" samarrak zirela, komunean eman behar izaten baitzituen beste lekuri ez eta; eta inoiz bere etxean ere bai). Aldi berean Do-

nostiako Udal Kontserbatorio Nagusiko arduradun Jose Ignazio Ansorenarekin ere harremanetan jarri ziren akademia berriuari legezko eta taxuzko egitura emateko asmotan, eta txistuaz gainera beste euskal soinu tresnen irakaskuntza ere ezartzeko aukera aztertzen hasi, albokak, dultzainak, txistuak eta txalaparta erosiz **Juan Mari Beltranen** bitartez (berau izango zen tresna hauen irakaslea hurrengo ikasturtean). Eta honela atondu zuten, 1985-1986 ikasturterako musika eskola berria.

MUSIKATEGIA

1985-1986 ikasturte hartan, aurretik lanean ari zen Montserrat Auzmendiz gainera, beste bost irakasle kontratatu ziren. Aipatu dugun bezala, Juan Mari Beltranek txistu eskolak emango

zituen, eta lehen aldiz, alboka, dultzaina eta txalapartakoak ere bai. Solfeo irakasleak **Arantza Alberdi** eta **Erramun Oiartzabal** izan ziren, lehenak Montse Auzmendirekin batean piano eskolak eta bigarrenak saxofoikoak ere bere gain hartu zituztelarik. Txistua eta saxofoiarekin, nolabait ordura arte udalaren musika zerbitzu historikoa izan zenarekin uztartzen zen eskola berriua, udal txistulariak eta musika banda baitziren, tradizioz, musika jardueraren funtsa herrian; baina ildo berean, herriko organista zen Manuel Yabene akordeoiarekin urtetan eginga dako lana ere ezin zen ahaztu, esku-soinuak bere tokia eta pisua hartua zuelarik hernaniarren belarritan, eta honela hasi zen **Joxan Goikoetxea**, udal eskolaren aldi berriko hernaniar





Eskolako abesbatza.



bakarra ere, akordeoi eskolak ematen. Eta eskola xume antean hasi bazen ere, egitasmoa askoz zabalagoa zelako, edota eskolaren ofizialtasuna lortze aldera harizko soinu tresna sinfonikoren bat sartzea derrigorrezkoa izango zela aurrikusita, biolina ikasteko aukera eskaintzea ere erabaki zen, **Eduardo Lassalette** izan zelarik lehen ikasturte hartan (eta hurrengo zazpitan) lau harizko soinu tresnaren arduraduna. Eta noski, pianoak osatzen eta sustatzen zuten eskaintza berritua.

Langile plantilla berri honekin gauzatu zen eskolaren lehenengo pedagogia plana, eta ofizialtasuna lortzeko tramiteak hasiko. Musika akademiak aurreko ikasturtean 94 ikasle inguru izan bazituen, 1985-1986 ikasturteko Musikategi berriak bikoiztu baino gehiago egin zuen ikaslegoa, 222 ikasletara iritsiz, eta hori izan zen, zalan-tza handirik gabe, handik 25 urtera Hernaniko musika eskola izango zenaren-tzako oinarri eta zutaberik sendoena.

Bigarren ikasturtean etorri zen ofizialtasuna, eta Hernaniko musika eskolak Kontserbatorio edo, garai haietan esaten zitzaion eran, "Musikategi" izendapena lortu zuen oinarritzako mai-lako musika irakaskuntzarako. Aurre-

rantzean, eta hurrengo bost urtetan gehienbat, hazkundera ia etengabea izan zen: piano eskolak gehitzearekin Arantza Alberdik solfeoak utzi eta **Garbiñe Orbegozo** hasi zen eskola hauek ematen 1986ko udazkenean, **Joseba Tapiarekin** lehenengo trikitixa eskolak ezarri zirelarik. Hurrengo ikasturteetan abesbatza ("korala"), perkusioa, klari-netea eta tronpeta gehitu zitzaizkion eskaintza pedagogikoari hurrenez hurren, eta lehenengo ikasleen musika taldeak sortzen hasi ziren, 1990eko bueltan 360 ikasletik gora zituelarik Hernaniko Musikategiak.

Eta hazkunde honekin, musika heziketa-ren ezinbesteko alorra den jarduera ere garatzen joan zen: jendaurrean, plazan, kalean edo aretoetan, ikas-le haiek beraien musika herriari es-kaintzekoa alegia. Jada lehen ikasturte amaieran, 1986ko ekainaren 26an, eta San Juan festen egitarauan, ikas-leen lehen kontzertua eskaini zuten **Sandiusterri aretoan**. Areto horixe, Biteri kultur etxekoarekin eta, geroago, Milagrosa kaperarekin batean, Hernaniko musikoen ehundaka saioen testigu izana da gaur arte. Ez dauka-gu hemen aipatzerik zenbat emanaldi egin dituzten musika eskolako ikasle eta irakasleek herrian urte luze haue-

tan, baina lehenengo kontzertua izan zenez, laurogeita seiko sanjoanetako kontzertu hura nola osatu zen oroitzea egin dezakegu besterik ez bada ere: Txalaparta taldeak eman zion hasiera kontzertuari, eta jarraian Javi Morcillo albokarekin, Kepa Osses eta Juan Alvarez dultzainarekin, Garikoitz Zerberio saxoan, Lierni Guerrero, Maider Ikaran, Ana Mari Perez, Eli Lujanbio, Alazne Mutiloa eta Arantxa Astigarra-ga pianoan, eta akordeoia joaz Mirari Iradi, Maider Tolosa eta Marta Igariz jardunda, eskolako lehenengo taldeak ere agertu ziren, txistu eta akordeoi taldeak alegia, bi talde hauek oinarri hartuta, ikasle guztiek abestuz itxi zu-telarik kontzertua.

Hurrengo ikasturteetan berriz, urrats handia emango zen musika jardueraren alor honetan ere. Bigarren ikastur-tea besterik ez zen, 1987ko apirilaren 9tik 11ra Juan Mari Beltranek **I. Txalaparta Festa** antolatu zuenean; jaial-di honek, geroztik, ez du hutsik egin, hitzaldi, erakusketa, mahai-inguru, dis-ko eta liburu, kontzertu, dantzaldi eta abarrez horniturik, beti txalapartaren inguruan, garai hartan galtzear zegoen soinu tresna honek gaur hartu duen indarraren motore nagusietako bat izan delarik, 23 txalaparta festatako



Eskolako trikiti ariak, saxojoleak (eta perkusionista batzuk) sanjoanetan.

larunbatean Gudarien enparantzan, Tilosetan, Elizatxo ikastolan edo Atsegindegian egin izan den jaialdi nagusia Euskal Herri osoko txalapartari guztien erreferentzia funtsezkoena bilakatu baita. Hirugarren ikasturtean berriz, ikasturte amaieran ikasleen kontzertuak, irakasleenak eta txalaparta festa bat eginik "I. Aste Musikala" deitu zitzaion zikloa antolatu zen, jada itxura hartzen ari zen musika eskaintza baten seinale, eta hori gutxi balitz, inauterietan, sanjoanetan, erregeen kabalgatan eta San Inazio eguneko Santa Barbarako erromerian musikategiko txistu, alboka, dultzaina, txalaparta, trikitiba eta akordeoi ikasleak ibili ziren jotzen. Geroztik ez da izan Hernanin musika eskolarik gabeko sanjoanik, eta herriko festa gehien-gehienetan izan dira bertako ikasleak jotzen: Florida-Etxeberriko Pentekostesetan, Ereñotzuko Sanantoniotan, Portuko San Juan Txikitan, Lizeagako Madalenetan, Karabeleko eta Akarregiko festetan,...

Hirugarren ikasturtean berriz, 1988-1989ko hartan, eskolaren etengabeko jarduna izan diren beste bi zutarri ezarri ziren. Batetik, ikasturtean barrena igandero-igandero eskolako alboka, akordeoi, dultzaina, trikitiba eta txistu ikasleak kaskoko kaleetara ordu pare

batez jotzera ateratzen hasi ziren; hasiera hartan jai arratsaldeetan egiten zuten beraien kalebuelta eta saiotxoak, gerora eguerdietan egiten hasi bazen ere, eta gaur da eguna urriaren azkeneko igandean hasi eta sanjoanak birtarte, Hernaniko kaleak alaitzen jaiero eskolako ikasleak dabiltzana. Bestetik, 1988ko urriaren 19an, Donostiako Kontserbatorioko Metal Boskoteak kontzertu aipagarria eskaini zuen Udaletxeko Areto Nagusian; kontzertu hau aipagarria dela diot, gehienbat musikategiak antolatutako lehenengoa izan zelako, eta harekin hasi zen "**Hileroko Musika Emanaldi**" zikloa, urtez urte kalerik egin gabe, zortzi-bederatzi kontzertu eman dituen. Kontzertu ziklo honen helburu nagusia, hasieratik eta gaur arte izan duena, eskolako ikasleei zuzeneko musika gerturatu eta entzuteko parada eskaintzea izan da, beraien musika formazioan funtsezkoztat jo izan den osagarri gisa; baina era berean, emanaldi edo kontzertu hauek herri guztiari ireki izan zaizkio lehenengo hartatik bertatik, eta urteen poderioz herriko musika eskaintza zabalena bilakatu da. 1988ko ziklo hartatik hasi eta 2009ko abendu arte 150 kontzertutik gora eskaini dira, piano, akordeoi, abesbatza, ganberako musika, folk talde eta tankerako formazio txikienak

nagusiki (aurrekontuek eta herriko azpiegiturek baldintzatu izan dutena beti), eta denak aipatzerik ez badugu ere, besteak beste, bertatik pasa dira: Carmen Ayastui, Iruñako Gaiteroak, Angel Huidobro, Kepa Junkera, Joseba Tapia, Hodeiertz abesbatza, Jean-Marc Fabiano eta Gerard Ocello, Aritzak taldea, Josetxo Silguero, Olatz Zugasti eta Pello Ramirez, Amaia Zubiria eta Pascal Gaigne, Javier Arrillaga, Txanbela, Dixiekleta Jazz Band, Gasteizko "Jesus Guridi" eta Pasaiko "Illunbe" musika eskolako orkestrak, Donostiako Udal Txistulari Taldea, Bogdan Precz, Joxan Goikoetxea, Gozategi, Euskal Kamerala, Habas Verdes, Balen López de Munain, Janne Rättyä, Etzakit, Mayalde (Eusebio eta Pilar), Iker Goenaga, Mixel Etxekopar eta Lurralde Zilarra, Judith Montero, Ainhoa Mercero, Kanta Cantemus, Marta Zuñiga eta Anna Alemany, Lituus, Zaldibobo, Eduardo Baranzano, Landarbaso abesbatza, Angel Unzu, Imuntzo eta Beloki, San Ignazio Eskolania, Sergei Voitenko, Iñaki Salvador, Ainara Ortega, Karlos Gimenez, Lauhaizeta akordeoi orkestra, Ansa ahizpak, Lizarrako Gaiteroak, Coro y Orquesta de San Ignacio de Moxos, Pirineos Jazz Orchestra, Javier Giroto, Os Miñotos, Jesus Mari Garmendia eta Javi Area, eta abar luze bat.

"Hernani" Musika Eskola Publikoa



Hastapenako ikasleak.

90eko hamarkadan, musikategi, kontserbatorio, musika eskola eta zirena zirelakoek, erronka handi bati egin behar izan zioten aurre. Hezkuntza sistema osoa eraldatzera zetorren **HSAOL legeak** (erdarazko "LOGSE" izenez ezagunagoa) 1992an ume txiki bat erditu zuen, Eusko Jaurlaritzaren Musika Eskolak Sortzeko 289/1992 Dekretua izena eman ziotena. Dekretu honek hankaz gora jarri zuen musika hezkuntzaren sistema osoa gure lurraldean, eta gaur egun "Hernani" Musika Eskola Publikoak duen egitura eta antolakuntza ezarri zituen. 92ko hura zetorrenari aurre egiteko prestakuntzako urtea izan zen, baina 1993-1994 ikasturtean, gure eskolaren 11.ean alegia, bete-betean ezarri zen sistema berria. Lehenik eta behin, musika heziketa sisteman bi formula edo bide ezberdin ezartzen zituen: irakaskuntza arautua, Kontserbatorioetan emango zena, eta irakaskuntza ez-arautua, Musika Eskolatan ematekoa. Ordura arteko "musikategi" eta gainerakoak aukeratu beharrean suertatu ziren, zein alorre-tatik jo nahi zuten, eta Hernanikoak, lurraldeko gehientsuenek bezalaxe, bigarrena hautatu zuen, Kontserbatorio izateari utziz.

Musika Eskolak, Kontserbatorioekin alderatuz, batik bat musika zaletu edo afizionatuei egongo ziren zuzenduak,

bide profesionala hautatu zezaketen ikasleei ere lagunduko bazien ere, hauek Kontserbatorioetara bideratuko zirelarik. Hala, lehen Goi Mailako musika ikasketak Donostia, Bilbo, Gasteiz nahiz Iruñan gauzatu bazitezkeen ere, ordutik aurrera Donostiako "Musikene" eta Iruñako Kontserbatorioa izango ziren (eta dira) inguruko zentro bakarrak, eta oinarritzko nahiz erdi mailako irakaskuntzari dagokionez, Donostia, Errenteria eta Irunek soilik eutsi zioten Kontserbatorio izaerari Hernani inguruan. Musika Eskola berrietan solfeo (orain "lengoaia musikala" izena hartuko zuena) musika hezkuntzaren funtsa izatetik osagarri bat baino ez izatera pasa zen, eta taldeko irakaskuntzak berriz, ordura arte izan ez zuen nagusitasuna hartu zuen. Ikasle bakoitzari eskaini ziezaiokeen irakas denbora murriztu egin zen, baina aldi berean eskola bakoitzak bere eskaintza moldatu ahal izateko malgutasun handia irabazi zen. Eta honek, ez Hernanin bakarrik, musika eskoletako jarduera urte gutxitan ikaragarri haztea ekarri zuen.


"Hernani" Musika Eskola Publikoa hartu zuen gureak izentzat 1996an, eta ordurako pedagogia plana ongi definitzen hasia zen (urte hartan bertan erredaktatu zen eskola arautzen duen Antolamendu eta Funtzionamendu

Araudia). 1997.ean eskolako lehen zuzendaritza eratu zen, **Ana Martínez** zuzendari zuela, eta **Maribel Insausti** idazkari; eta 1998.ean Eskola Kontseilua jarri zen martxan, ikasle, guraso, irakasle eta udal ordezkariak osatua. 1993tik 2004 bitarte, esan bezala, beste hazkunde garrantzitsua eman zen, nola eskaintzan, hala ikaslegoan ere. Hala, 1993an sortu zen lau-zazpi urte bitarteko haurrentzako musika tailerra, hastapenekoak deitzen duguna, zortzi urtetik gorakoek musika ikasketak zuzenean soinu-tresnarekin hasten dituztelarik. Taldeko jarduera ere areagotzen joan da, eskolako ikasle guztiek taldeko irakaskuntza jaso behar baitute, eta hala sortu zuen **Roberto Pachecok** 1998an lehen ikasleen banda, jada martxan ziren abesbatza, akordeoi orkestra, txistu, dultzaina, alboka, trikitixa eta txalaparta taldeak, soka taldea eta saxofoi taldea berrindartuz zihoazelarik. 2001ean biolontxelo eta gitarra gehitu zitzaizkion eskolaren eskaintzari, eta eskolak hiru probintziatako beste musika eskola publikoekin bat egin zuen **Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarte**an. 2003an berriz, teklatu taldeak sortu ziren.

Hazkunde honek, ordea, bazituen arazoak ere, handiena seguru asko toki premia zelarik. Hala, musikategiak udaletxeko azkeneko solairuan egin

behar izan zituen urte luzeak, horietako asko behin-behineko aglomeratuzko paretekin nolabait antolatutako "gela" batzuetan, baina Musika Eskola bihurtzeko prozesu berriak jada derri-gorrezkoa egin zuen aspaldiko eskaera zena gauzatzea, eta honela, 1997.ean inauguratu zen **Atzieta kaleko 4.ean**, lehen DYA izandakoan, eskolak gaur duen eraikina. Eraikin hau ordea, hasiera-hasieratik antzeman zen txikitxo izango zela eguneroko lanerako, eta 2001etik zenbait eskola emateko Milagrosa kapera ere erabili beharrean izan zen, areto hura darabilten taldeekin batera (Kantuz abesbatza, txistulariak eta Musika Banda). Eta gaur egun ere, espazioarena da noski, musika eskolaren arazo nagusia.

Arazoak arazo, 2009-2010 ikasturte honekin hogeita bosgarrenari ekin diogu, eta esan liteke, mende laurdena igarota, Hernaniko musika eskolaren eskaintza ongi sustraitua eta oinarritua dagoela, bere gabezia eta guzti, hainbat alorretan lan bikaina gauzatzen ari dena. Ikasturte berri honetan 465 ikasle ditu matrikulatuak, hasierako 222 haiek ere bikoiztu baino gehiago egin direlarik hortaz, eta eskaintza zabaltzeko zailtasunak direla eta 2004ko hartatik hazkundea gelditua dagoela badirudi ere, 947 matrikula kontatzen direla jada, irakasgai ezberdinetan.



"Hernani" Musika Eskola Publikoan, gaur egun, 14 soinu tresna ezberdin jotzen ikas daitezke: **alboka, akordeoia, biolina, biolontxelo, dultzaina, gitarra, klarineta, pianoa, perkusioa, saxofoia, trikitixa, tronpeta, txalaparta eta txistu**. 4-7 urte bitarteko haurrek musikaren hastapeneko tailerrak egiten dituzte, eta 8 urtetik gorako ikasleek lengoia musikala ikasteko aukera dute soinu-tresnarekin batera. Inoiz helduentzako solfeo talde bereziak egin izan badira ere, gaur gaurkoz ez da lortu talde horiek eskaintzan finkatzerik. Eta azkenik, musika talde ezberdinak daude eskaintza pedagogikoan: **abesbatza**, txistu, dultzaina eta alboka taldeak, trikitilarienak, akordeoi taldeak, teklatu taldeak, saxofoikoak, ikasleen banda, soka taldea, eta **Joera Ezberdinak** deitzen zaion irakasgai gisa, bestelako talde heterogeneoak osatzeko aukera.



Txalaparta eta albokako ikasleak.

Eskaintza pedagogikoaz gainera, honen osagarri gisa sortu zen musika eskaintza ere badago, baina halako indarra hartu du eskaintza honek, jada herrirako zerbitzu bilakatu da, herritik kanpora ere gero eta maizago sentitzen delarik. Beste herrietako musika eskolekin alderatuz, beharbada bi puntutan ezberdintzen eta nabarmen-tzen da Hernanikoa: lehena, Euskal Herriko herri musikako soinu tresnen inguruan eratu duen eskaintzan, berau izan baitzen txalaparta, alboka edo dultzaina lehen aldiz eskola publiko batean ikasteko aukera eman zuena, 1985eko hartan, eta beronek jarraitzen du izaten bost soinu tresna horiek (alboka, dultzaina, trikitixa, txalaparta eta txistua) eskaintzen dituen eskola publiko bakarra, Euskal Herrian eta, beraz, mundu osoan. Eta beste puntu nabarmena, ikasleen jendaurreko jarduerarena da. Gero eta gehiago gainerako eskolek ere jarduera hauek bultzatzen badituzte ere, Hernanikoan sortu zenetik egin da ahalegin berezia honetan, eta gutxi izango dira, baita hiri handietan ere, urtean barrena Hernaniko musika eskolak adina aktuazio gauzatzen dituztenak.

1986ko lehen ikasle kontzertu hartatik hasi eta, urtez urte, ugaritzen joan diren saioekin, 2008-2009 ikasturtean, ikasle eta irakasleek jendaurrean egin-dako **175 saio** kontatzera iritsi ginen.

Honek esan nahi du, egun batean saio bat baino gehiago kontzentratuko ez balira (asteburuetan batik bat), urtean barrena ia bi egunetik behin gure eskolako ikasleren bat jende aurrean jo-tzen aritua izango zela. Saio horietako 118 (%68) Hernanin gauzatu ziren, eta Hernanitik kanpora, Donostian 30 saio, Andoainen 4, Erreterria, Oiartzun eta Madrilen bina, eta saio bana Alegia, Arrasate, Durango, Elgoibar, Goizueta, Igeldo, Itziar, Mungia, Olite, San Adrian, Tolosa, Usurbil, Zaldibar eta Zaldibian, hala nola Castelfidardon (Italia) eta Xixonen (Asturies). Kontuan izatekoa da saio horietako asko ez di-rela musika eskolak berak antolatutak izaten, denera 75 direlarik zuzenean edo beste erakunderen batekin elkar-lanean musika eskolak antolatutakoak. Ez da gutxi, ez baita ahaztu behar hori ez dela eskolaren egiteko nagusia. Baina bistakoa da beste 100 saio ho-riek kanpoko erakundeek eskatutako **lankidetzak** izan badira, musika es-kolak herriari eta herritik kanpora es-kaintzen duen zerbitzua ere ez dela makala. Hala, Hernaniko beste elkarte eta erakundeen artean, 2008-2009ko hortan musika eskolara laguntza eske jo zutenen artean aipa ditzakegu zen-bait: Tolare Sagardo Kofradia, Berriak, Chillida-Leku, Gabiltza, Ereñotzuko Jai Batzordea, Akelarrea, Gazte Asanbla-da, Kaxko Auzo elkarte, Hernaniko Udala, Axeri dantza, Ttaria Dantza tal-

dea, Kriskitina Dantza taldea, San Juan Konpartsa, Martindegiko Jai Batzordea, Portuko Jai Batzordea, Senideak edo Xalaparta elkarte, besteak beste.

Jendaurreko saio horien artean aipaga-rriak dira, batetik, urtero-urtero egiten direnak, batzuk hogeit urtean baino ge-hiago. Iganderoko kalebuelak dira ho-rietako batzuk; San Joanetako dianak, erraldoiak, akelarrea, Ttarlaren dantza saioa, txupinazoko kalejira, dultzaine-roen topaketa eta Larrain-dantza, edo ekainaren 27ko axeri-dantza mistoa ere ezin ahantzi; berdin inauterietan astelenitako diana eta axeri dantza, edo sardinaren ehorzketa; Santa Zezilia eguneko ikasle kontzertua; ekainean gauzatzen diren ikasturte amaierako kontzertuak; otsaileko hastapeneko en-tzunaldiak, edota maiatz-ekaineko akordeoi jole eta pianistenak; Donostia Hiria pianoa lehiaketa eta Elgoibarko Instrumentu Taldeena; Olentzero ez-berdinak, musika eskolak ateratzen duena, abenduaren 23ko Antiguoko olentzeroa edo 24ko Hernanikoa na-gusiki; erregeen kabalgata; Arrasateko akordeoi lehiaketa; Dantzari Festa; Eguberrietako abestien jaialdia; Zal-dibiako Ardi Eguna; Portuko txupi-nazoa eta diana; Hernaniko Trikitilari Txapelketa; Donostiako Euskal Jailetako Trikitilari Jaialdia; Zarauzko Akordeoi Kultur Astea;... eta batek daki zenbat gehiago.



Akordeiojole gazteak eta
"biolinak" Chillida-Lekun.



Eskolako txistiularian 2005eko
Dantzari Festan.



Eskolako pianojolea.

Eta amaitzeko, ezin utzi aipamen berezia egin gabe musika eskolatik bertatik antolatu izan diren jaialdiei. Txalaparta Festaz hitz egin dugu gorago, baina jada ospatuak diren 23 txalaparta festen eragina ez da izan soilik txalapartaren munduan izan duena. Horien arrakastak animatuta, eta euren eredia jarraituz, **Albokarien Topaketak** antolatu dituzte Juan Mari Beltran eta musika eskolako alboka taldeak, 16 urtez. 1994an, ekainaren 27an sanjoanetako baserritarren eguna ospatzen zela eta, berau antolatzen aritzen ziren Elur Txori elkarteak euskal herri musika osatu behar zutela pentsatu zuten, eta Juan Mari Beltrani otu zitzaion aukera ona izan zitekeela Euskal Herriko alboka eskola guztiak (orduak Hernani, Gasteiz eta Bilbon bakarrik zeuden halakoak) Hernanin bildu eta, alboka joaz, elkarren eza-gutxera egiteko. Aurrerantzean, urtero egun horretan gauzatu zen topaketa hori, harik eta albokarien lana hazten zihoan neurrian egun hura euren lanak agertzeko txikitxo egin zitzaizen arte: sanjoanak ez ziren garai egokiena albokaren inguruan kontzertuak,

erakusketak, hitzaldiak, tailerrak, eta bestelakoak antolatzeko, eta honela, 1999.ean, iraileko azkeneko asteburura eraman zen Hernaniko 6. Albokariaren Topaketa.

Txistulari Jaialdia geroxeagokoa dugu. Iñaki Eguren eta txistu taldeak ere ikusten genuen nonbait, txistuaren inguruan txalaparta eta albokarekin egiten zenaren antzeko zerbait egiteko premia. Soinu tresna hau ez zegoen aurreko biak bezain egoera prekarioan, baina Hernanik txistuaren inguruan izandako tradizio bizia kontuan izanda, elkargune nagusia ez izanda ere, txistuaren mundurako beste motore garrantzitsu bat izan zitekeela otu zitzaion. Eta honela jaio zen 2005ean **Hernaniko I. Txistulari Jaialdia**, Patxi Apezetxeak zuzentzen duen "Goizetik" txistulari taldea eta Euskal Herriko Txistulari Elkartearekin lankidetzan. Lehen urte hartan, eta oinarri izan behar zuela pentsatuz, gure oinarrietara begiratu genuen hain zuzen ere: Antonio Insausti Txobitori eskaini zitzaion jaialdia eta, bereziki, honen bizkarrezur edo muin bihurtu den Txistulari Gazteen Hernaniko Txa-

pelketa (gaur gaurkoz, Euskal Herrian jarraikortasunez egiten den txistularien txapelketa bakarra).

Pianoarekin horrelako zerbait egitea askoz zailagoa zen. Txistu, alboka eta txalapartarena baino izugarri mundu zabalagoa da pianoarena batetik, eta bestetik tresnak berak zailago egiten du pianisten arteko topaketak gauzatzeari. Baina Arantza Alberdi, beste eskola batzuetako zenbait irakasle bezala, konturatua zegoen piano joleek behar zutela lehia baino gehiago elkarren eza-gutxera bultzatuko zuten topaguneren bat, eta behar zutela jende aurrean euren lana azaltzeko gune zabalagoren bat. Arrasaten akordeoiaren inguruan egiten zen antzeko zerbait, eta musika eskola ezberdinetako sei irakasle elkartuta, tartean Arantza bera, **Andoaingo Piano Jaialdia** antolatu zuten estraineko 2006an, Andoaingo Bastero Kulturgunea baitzen horretarako azpiegitura nahikoa zuen leku egokiena. Jaialdi hori, urte pare batean, izan den arrakastarik handienetakoa bihurtu zen: 2009ko edizioan, 921 piano jolek parte hartzeraino.

BAIETZ BESTE HOGEITA BOST!

Honela bada, hogeita bost urte horietan, "*Hernani*" Musika Eskola Publikoa herrian ongi sustraitu eta sendotasuna hartzeaz gainera, zenbait alorretan Euskal Herri mailan erreferentzia garrantzitsu izatea ere lortu da. Baina beste hogeita bost eskatzeko ere, kon-tuan izatekoa da orain arteko bidean hutsuneak ere izan direla, eta aurrera begira erronka ugari dauzkagula be-gien bistan.

Eskolaren gaur eguneko pedagogia planari erreparatuta, ezarrita dauzkan zenbait helburu esan liteke sobera lor-tuak daudela, eta aurrerantzean horie-tan egin beharreko lana ongi bidera-tua dago hortaz: ikaslegoaren musika ezagutzak bultzatzea, inguruaren mu-sika eskaerei erantzutea, irakaskuntza praktikoa bakarka nahiz taldeka es-kaintzea, ikaslegoaren parte hartzea sustatzea, musika estilo ezberdinak lantzea, ikasketa erritmo ezberdinak ezagutzea, herriko musika tradizioak bildu eta zabaltzea, edota beste he-rrietako musika eskolekin lankidetzan jardutea. Baina badira oraindik bereziki landu beharreko helburuak ere. Esate-rako, adin guztietarako irakaskuntza eskaintzea da horietako bat, eta ora-indik orain, helduentzako taxuzko mu-

sika irakaskuntza antolatzeaz daukagu. Beste erronka bat, eskolaren beraren markoa gainditzen duena, maila pro-fesionala lor dezaketen ikasleei bidea erraztekoa da, asko badira ere bide hori hartu izan duten ikasleak, zale-tuen mailan lan egiteko ahalegin be-rezia egin den gisara, ez baita nahi eran lortu alor profesionalera bideratu-takoei merezi duten orientaziorik eta jarraipenik egiterik.

Horiek eta bidean ezartzen joango diren beste zenbait helbururi erantzut-en joan ahal izateko, bi koska nagusi aurrikusten ditugu, jada, oso epe la-burrera. Bata, herri mailan konpon-du beharrekoa, espazioen arazoa da. Musika eskolak apustu handia egin beharra dauka horretan, herriko bes-te elkarte eta erakundeekin batean, arazoa ez baita soilik ikasgelen eskas eta desegokiarena (une honetan ikas-leek ez dute non entsaiatu, etxean ez bada), Hernanin ez baitago orain-dik itxurazko aretorik kontzertuak eta musika emanaldiak txukun gauzatu ahal izateko, eta daudenen gabeziek (Sandiusterri, Biteri eta Milagrosa ba-tik bat) erabat baldintzatzen eta mu-gatzen dute hor egin daitekeen lana. Espazio horien sakabanaketa ere ara-

zo garrantzitsua da, lanerako ahalme-nak ere horrelaxe sakabanatzen baiti-ra. Musika eskola eta herriko musika jardueran dabiltzan beste elkarteak (abesbatzak, banda, txistulariak,...) elkartzen hasteko garaiek ere iritsi beharko dute noizbait.

Bestetik, "goitik" edo datorren koska daukagu. Musikaren hezkuntza siste-ma arautzen duen dekretuak hama-zazpi urte egin ditu, eta badira batzuk zenbait aldaketa egin behar zaizkiola eskatzen ari garela, besteak beste, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkar-tetik. Eta badirudi aurki baino lehen izango dugula dekretu berriren bat. Oraindik ez dakigu ordea nora eraman gaitzakeen aldaketa horrek. Nolanahi ere, musika eskolen antolakuntza eta funtzionamendua ziurrenik asko alda dezake, eta hori, arrisku larri samar bat izan litekeen bezalaxe, izan liteke es-kola hobetzeko jauzi garrantzitsu bat. Horren alde apostu egin behar, eta ez da apustu makala izango, hasteko azken hamar urteotan ezartzen joan garen mugak haustea eskatuko baitu. Baina nik baietz egingo nuke, Hernanik aurre egingo diola beste hogeita bosti, gutxienez aurreko hogeita bostei egin dien indar eta gogoz. ■